Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

Honekin batera bidaltzen dut beheko gaia jorratzen duen araugintzako ebaluazio txostena, hala jasotzen baitu 6.4 artikuluan (uztailak 3ko 3/2013 Foru Arauaren bidez aldatua) Gipuzkoako lurralde historikoaren erakunde, gobernu eta administrazioari buruzko uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak:

De conformidad con lo previsto en el artículo 6. 4 de la Norma Foral 6/2005 de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, modificado por Norma Foral 3/2013 de 3 de julio, se adjunta informe de evaluación normativa referido a:

**12/2020 Foru Dekretu-Araua, abenduaren 22koa, 2021. urterako berandutze interesa, AP-8 eta AP-1 autobideak erabiltzeko kanona eta zerga arloko eguneratze koefiziente batzuk zehazten dituena**

**Decreto Foral-Norma 12/2020, de 22 de diciembre, sobre determinación para 2021 del tipo de interés de demora, canon de utilización de las autopistas AP-8 y AP-1 y diversos coeficientes de actualización tributarios**

Donostia, 2022ko otsailaren 28an
San Sebastián, a 28 de febrero de 2022

| **Digitalki sinatua** / Firmado digitalmente por: | |
|---|---|
| Gipuzkoako Foru Aldundia | **Jokin Perona Lerchundi**<br>**Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua**<br>Diputado Foral del Departamento de Hacienda y Finanzas |

Gipuzkoako Foru Aldundia
Ogasun eta Finantza Departamentua

Diputación Foral de Gipuzkoa
Departamento de Hacienda y Finanzas

# Araugintzako ebaluazio txostena

# Informe de evaluación normativa

**12/2020 Foru Dekretu-Araua, abenduaren 22koa, 2021. urterako berandutze interesa, AP-8 eta AP-1 autobideak erabiltzeko kanona eta zerga arloko eguneratze koefiziente batzuk zehazten dituena**

**Decreto Foral-Norma 12/2020, de 22 de diciembre, sobre determinación para 2021 del tipo de interés de demora, canon de utilización de las autopistas AP-8 y AP-1 y diversos coeficientes de actualización tributarios**

Txosten honen bitartez bete nahi da uztailaren 12ko 6/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Erakunde Antolaketa, Gobernu eta Administrazioari buruzkoak, 6.4 artikuluan ezarritakoa, bertan xedatzen baita zenbait foru arauren kasuan Batzar Nagusiek araugintzako ebaluazioa egin behar dutela, indarrean jarri eta urtebetera.

A través de este informe se trata de dar cumplimiento al mandato legal recogido en el artículo 6.4 de la Norma Foral 6/2005, de 12 de julio, sobre Organización Institucional, Gobierno y Administración del Territorio Histórico de Gipuzkoa, según el cual, ciertas normas forales serán sometidas al procedimiento de evaluación normativa por las Juntas Generales, una vez transcurrido un año desde su entrada en vigor.

## Sarrera

2020an zehar, covid-19aren pandemiak jarduera ekonomikoa murriztea eta moteltzea eragin zuen, eta horrek, aldi berean, Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga sarrerak nabarmen murriztea ekarri zuen.

Egoera hori gainditzen lagunduko zuten eta azken hamarkadetan lortutako ongizate egoerari eustea ahalbidetuko zuten gastu politikei eutsi ahal izateko, beharrezkoa izan zen beste finantzaketa iturri batzuetara jotzea, hala nola zor publikoa eta nazioko zein nazioarteko erakundeetatik zetozen funtsak eskuratzea.

Egoera horren aurrean, eta 2021erako aurrekontu orokor koherenteak eta errealitate ekonomiko eta sozial berri horri egokituak egiteko, atzeratu egin behar izan zen haien izapidetzea eta onarpena, 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera. Data horretarako onespen falta horren aurrean, automatikoki luzatutzat jo behar ziren Gipuzkoako Lurralde Historikoaren 2020ko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituen abenduaren 23ko 9/2019 Foru Arauan jasotako

## Introducción

A lo largo del 2020 la pandemia de la covid-19 provocó una reducción y ralentización de la actividad económica, que a su vez supuso una disminución significativa de los ingresos tributarios del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Para poder mantener las políticas de gasto necesarias que coadyuvasen a superar dicha situación y permitiesen mantener el estado del bienestar alcanzado en las últimas décadas, resultó necesario recurrir a otras fuentes de financiación, como la deuda pública y el acceso a los fondos provenientes tanto de las instituciones nacionales como internacionales.

Ante esa situación, y de cara a elaborar para 2021 unos presupuestos generales coherentes y ajustados a esa nueva realidad económica y social, resultó necesario demorar su tramitación y aprobación más allá del 1 de enero de 2021. Ante esa falta de aprobación para esa fecha, se iban a considerar prorrogados automáticamente diversos preceptos contenidos en la Norma Foral 9/2019, de 23 de diciembre, por la que

zenbait agindu.

se aprueban los Presupuestos Generales del Territorio Histórico de Gipuzkoa para el año 2020.

Automatikoki luzatzen ziren agindu horien artean, zerga gaiei buruzko zenbait zeuden. Zerga antolamenduari segurtasun juridiko handiagoa emateko, gomendagarria zen luzapen horren aplikazioaren zenbait alderdi argitzea eta arautzea.

Dentro de esos preceptos que se prorrogaban automáticamente se encontraban varios relativos a materias tributarias. Para dar una mayor seguridad jurídica resultaba recomendable aclarar y regular diversos aspectos de la aplicación de esa prórroga.

**Berandutza interesa**

**Interés de demora**

2021eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitarteko ondorioekin, %3,75 izango zen, 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrak, 26.6 artikuluan jasotako berandutza interesa.

Con efectos desde el 1 de enero hasta el 31 de diciembre del año 2021, el interés de demora a que se refiere el artículo 26.6 de la Norma Foral 2/2005, de 8 de marzo, General Tributaria del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se estableció en el 3,75%.

%3,75eko portzentaje hori 2020an indarrean zegoen berbera zen; beraz, ez zen inolako aldaketarik egin aurreko urtearekin alderatuta. Egin zen gauza bakarra izan zen argi eta garbi adieraztea zein izango zen 2021erako berandutzako interes tasa.

Ese porcentaje del 3,75% era el mismo que estaba en vigor en 2020; por tanto, no se introdujo ningún tipo de modificación respecto al año anterior. Lo único que se hizo fue señalar con claridad cuál iba a ser el tipo de interés de demora para el 2021.

**Balio katastralak**

Onartu zen 2021eko zergaldian mantendu egingo zirela 2020rako finkatutako balio katastralak, 1989ko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauak, Ondasun Higiezinen gaineko Zergarenak, 13. artikuluan jasotakoaren ondorioetarako.

Egin zen gauza bakarra izan zen argi eta garbi adieraztea zein izango ziren 2021eko balio katastralak.

**Valores catastrales**

A efectos de lo previsto en el artículo 13 de la Norma Foral 12/1989, de 5 de julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, se aprobó que durante el periodo impositivo del año 2021 se mantuviesen los valores catastrales fijados para 2020.

En este caso tampoco hubo ninguna modificación respecto a 2020; lo único que se hizo fue señalar con claridad cuáles iban a ser los valores catastrales en 2021.

**Zenbateko finkoko tasak**

Onartu egin zen 2021eko urtarrilaren 1etik aurrera, ez zirela aldatuko, 2020an aplikatutakoen aldean, departamentuek kudeatutako Gipuzkoako Foru Ogasuneko zenbateko finkodun tasen eta ordainarazpen parafiskalen tipoak, betiere uztailaren 12ko 5/2005 Foru Arauak, garraio alorrean zerbitzuak eman eta jarduerak egiteagatik exijitu beharreko tasak arautzen dituenak, 5.4 artikuluan ezarritakoa eragotzi gabe.

**Tasas de cuantía fija**

Se aprobó que a partir de 1 de enero de 2021 las tasas y exacciones parafiscales de la Hacienda Foral de Gipuzkoa gestionadas por los diversos departamentos, que fuesen de cuantía fija, no sufrirían alteración respecto a los que fueron de aplicación en 2020, sin perjuicio de lo establecido en el apartado 4 del artículo 5 de la Norma Foral 5/2005, de 12 de julio, reguladora de las tasas por la prestación de servicios y realización de actividades en materia de transportes.

Egin zen gauza bakarra izan zen argi eta garbi adieraztea zein izango ziren 2021eko zenbateko finkoko tasak.

En este caso tampoco hubo ninguna modificación respecto a 2020; lo único que se hizo fue señalar con claridad cuáles iban a ser esas tasas de cuantía fija en 2021.

**AP-8 eta AP-1 autobideak erabiltzeagatiko kanona**

**Canon de utilización de las autopistas AP-8 y AP-1**

%3,50eko eguneratzea onartu zen, 2020an indarrean zeuden zenbatekoekin alderatuta.

Se aprobó una actualización del 3,50% con respecto a las cuantías vigentes en 2020.

## Sortutako ondorioak

## Efectos producidos

Berandutza interesak, balio katastralak eta zenbateko finkoko tasak ezartzeko neurriek ez zuten inolako aldaketarik egin indarrean zegoen araudian. Soil-soilik, eta araudiaren argitasunaren mesedetan, 2021ean zeintzuk egongo ziren indarrean adierazi zen.

Las medidas dirigidas a establecer el interés de demora, los valores catastrales y las tasas de cuantía fija no introdujeron ningún tipo de modificación sobre la normativa vigente. Simplemente, y en aras de la claridad normativa, se señalaron cuales iban a estar vigentes en 2021.

AP-8 eta AP-1 autobideak erabiltzeko kanona ezustekorik gabe eguneratu zen, eta eragindako ondorioen artean ez zen inolako berezitasunik egon.

La actualización del canon de utilización de las autopistas AP-8 y AP-1 se produjo sin ningún contratiempo, y dentro de los efectos producidos no hubo ningún tipo particularidad.

**Proposatutako helburuen eta lortutako helburuen arteko lotura**

Finkatutako eta lortutako helburuak bat datoz erabat.

## Araugintza garatzeko beharrak

Ez da inolako arau garapenik egin behar izan.

## Laburbilduz

Aztertutako foru dekretu-araua eraginkortasunez bete da, inongo arazorik gabe, traba berezirik gabe bete, eta haren aplikazioan ez da gertatu inolako judizializazio kasurik.

**Correspondencia entre objetivos propuestos y objetivos alcanzados**

Existe plena correspondencia entre los objetivos perseguidos y los alcanzados.

## Necesidades de desarrollo normativo

No ha habido necesidad de ningún desarrollo normativo.

## En resumen

El decreto foral-norma analizado se ha puesto en cumplimiento de manera efectiva, sin ningún tipo de problemas en su aplicación, sin ningún contratiempo en especial, y hasta la fecha no se ha producido ningún caso de judicialización en su aplicación.